

(apirila - abril)

Munduaren arima lez.

Ezin ahaztu nondik gentozan:

- Grazianoren dekretua: *"kristinauen genero bi dagoz, agintzen dabenak eta esana egiten dabenak"*.
- Laikotza *"etzanagaitik"* definitzen zan: ez zan abadea, hierarkia, lekaimea, lekaidea.
- Kristinau-ikasbidean: *"erantzuten jakingo daben doktoreak ditu Eliza Ama Santuak"*.
- Ekintza Katolikoa *"hierarkiaren esku luze"* lez agertzen zan,
- Eliza egitura *"piramidala"* zan.

Halanda be, Kontzilioak zera proposatzen eban:

Laikoen apostolutzak, beraien kristau-bokaziotik bertatik sortzen baita, ezin du huts egin Elizan.

Apostolicam Actuositatem (AA 1).

irakurketa eta alkarrizketarako gida

1. Irakurri testuak eta, zeure erara, idatzi laikotzaren eta bere egitekoaren ezaugarriak.



2. "Laikotzaren ahuldadea" aitutzen da gaur. Zure ustez, zerk eragiten dau? Argibideren bat egoera honetatik urteteko?



3. Ezagutzen dozu "laiko lagunaren" egoera elizbarrutian?, zer deritxazu?





Lumen Gentium (LG) *Elizari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1964.eko azaroaren 21a*

33. Laikoen apostolutza, Elizaren salbamen-ekintza berean esku hartzea da. **Guztiak dira Jaunak berak horretara deituak, bataioaren eta sendotzaren bidez. Sakramentuek, eta batez ere Eukaristiak, apostolutza ororen bizigarri den Jainkoarenganako eta gizakienganako maitasuna ematen eta elikatzen dute. Laikoak bereziki deituak dira, beraien bidez soilik lurraren gatz bilaka daitekeen leku eta baldintzetan Eliza presente eta eragingarri egitera. Honela, laiko oro, eman zaizkion dohainen indarrez, lekuko bihurtzen da eta aldi berean Eliza beraren misioaren tresna bizi, Kristok eman nahi izan dion neurrian hartu duen dohainaren arabera (Ef 4,7).**

apostolutza ororen bizigarri

Jainkoarenganako eta gizakienganako maitasuna da eta sakramentuetan, batez be Eukaristian, elikatzen da.

Kristinau guztiak, bereizketa barik, apostolu dira euren Bateo eta Sendotzatik.

Gaudium et Spes (GS) *Eliza gaurko munduan konstituzino pastoralak. 1965.eko abenduaren 7a*

43. Kontzilioak aholku ematen die kristauei, bi hirietako herritarrei, Ebanjelioaren espirituak gidaturik, mundu honetako eginbeharrak leialki betetzen saia daitezen. Oker daude, guk hemen hiri iraunkorrik ez daukagula jakinik, baizik eta geroko hiriaren bila gabiltzala, hori dela eta lurreko eginbeharrak laga ditzaketela uste dutenean, beren fedeagatik beragatik, bakoitza deitua izan den bokazioaren arabera, horiek betetzera behartuago daudela konturatu gabe. Baina ez daude zuzenago, ordea, lurreko arazoetan murgil daitezkeela uste dutenak, hauek erlijio-bizitzarekin inolako zerikusirik ez balute bezala, hau elizkizun-ekintzetan eta moraleko eginbehar batzuetan datzala soilik uste dutelako. **Aitortzen duten fedearen eta askoren eguneroko bizitzaren arteko banaketa, gure garaiko oker larrienetakotzat jo behar da... Lurreko eginbeharretan zabarkeriaz jokatzeko duen kristauak, lagun hurkoarenganako eginbeharretan eta are Jainkoarenganakoetan ere zabarkeriaz jokatzeko du eta arriskuan jartzeko du bere bertiko salbamena.**

fedearen eta bizitzaren arteko banaketa

Ebanjelioaren espiritutik, fedeak gure pentsamoldea, jokaerak eta ohiko bizimodua aldatzen ez dauanean gertatzen da.

lurreko eginbeharretan zabarkeriaz jokatu


Herritar lez jagokezan eginbeharrak dira. Kristinau ez dago horreetatik libre, esate baterako zerga-betebeharretatik edo zintzotasun profesionaletik.

Lumen Gentium (LG) *Elizari buruzko konstituzino dogmatikoa. 1964.eko azaroaren 21a*

38. Laiko bakoitzak Jesus Jaunaren piztueraren eta bizitzaren lekuko eta Jainko biziaren ezaugarri izan behar du munduaren aurrean. Guztiek elkarrekin eta bakoitzak bere aldetik fruitu espiritualekin janaritu behar dute mundua (ik. Gal 5, 22) eta zabaldu bertan barrena Ebanjelioan Jaunak zoriotsu direla esan zuen pobre, apal eta bakezaleak biziartzen dituen espiritua (ik. Mt 5, 3-9). Hitz batez, **"arima gorputzean dena, horixe izan behar dute kristauak munduan"**.

kristinauak munduan

Adore, biderapen eta hasiera transzendentea izan behar dabe gizartearen eta historiaren erdian.



1965ean, 'Concilium' aldizkaria sortu zan, Kontzilioa ezartzeko eta bere senari eusteko; kontzilioko teologo handienetako batzuk izan ziren bultzatzaileak:

Congar, Rahner, Küng, Ratzinger, Schillebeckx...

Apostolicam Actuositatem (AA) *Laikoen apostolutzari buruzko dekretua. 1965.eko azaroaren 18a.*

1. Ez dute gutxiago eskatzen dute garaiek laikoen apostolugarra, bestela baizik: **oraingo egoerak haien apostolutzatza biziagoa eta zabalagoa eskatzen du.** Egunetik egunera biztanleak gehitzeak, aurrerapen zientifiko eta teknikoek, giza harremanak bi-ziagoak izateak, ez bakarrik ugaritu dituzte neurrigabeki laikoen apostolutzako guneak, gehienak haiei soilik irekiak, baizik eta **haien ardura zolia eta ahalegina eskatzen dituzten arazo berriak ere sorrarazi dituzte.**

ardura zolia eta ahalegina

Borondate ona ez dalako nahikoa. Ezinbestekoa da beste batzuekin batera ikastea eta egoki prestatzea unean uneko egoereak eskatzen dauan mailan egoteko.

Ad Gentes (AG) *Elizaren misino-ekintzari buruzko dekretua. 1965.eko abenduaren 7a*

21. Eliza ez dago egiaz sortua, ez da bete-betea bizi eta ez da gizakien artean Kristoren ezaugarri perfektua ere, laikotza benetako bat ez dagoen bitartean ea hierarkiarekin lan egiten ez duen bitartean. Izan ere, **Ebanjelioa ezin daiteke sakonki sarturik gelditu gizakien gogoan, bizitzan eta herri baten lanean, laikoen presentzia aktiborik gabe.** Horregatik, jada Eliza sortzen den unetik bertatik, ardurarik handiena jarri behar da kristau-laikotza heldua ezartzeko.

Haien eginbehar nagusia, gizon eta emakumeena, Kristoren testigantza ematea da, beren bizieraz eta hitzez eman behar baitute familian, beren giza taldean eta beren lanbideko ingurunean. Beharrezkoa da giza izaera berria, Jainkoaren arabera zuzentasunean eta egiaren santutasunean sortuz, ager dadin beraiengan.

Bat egin bezate egiazko maitasunez beren herrikideekin, haiekiko harremanetan Kristoren ministeriotik datorren batasun eta solidaritate unibertsalaren lotura berria ager dadin. **Erein bezate fedea bizikide eta lankide dituztenengan ere; hain premiazkoa da eginbehar hau, non auzoko laikoena baino beste biderik ez baitute gizaki askok Ebanjelioa entzuteko eta Kristo ezagutzeko.**

Elizaren ministroek, bestalde, garrantzi handia eman bie-zaiozte laikoen apostolutzari.

auzoko laikoaren bitartez

Izan be ez hierarkiak ezta eliz erakundeek be ezin dabe era esanguratsuan lagun eta bizigiro askotara heldu.



OTOITZ EGIN

Isilunea egin, ezagutzen dituzun gizon eta emakume laikoak gogora ekarriz.

1. Laikotza konprometituta (bakarka edo alkartuta) gogoratu eta Jaunari eskerrak emon,
2. eta, aldi berean, argia eta indarra eskatu, hain aldakorrak diran sasoi honeetan egoereak eskatzen dauan maila emoteko.

Idazteuna:

Erabili daitezkezan testuak: Lukas 9, 1hur.; Mateo 9, 35hur.; Markos 16, 14hur.;

Eginak 1, 6-8

Abestia:

Mundu barri bat... (Kantu-liburu: kanta dagigun danok, 184 zk.)

Danok batera esango dogu:



Yves Congar



Karl Rahner




Joseph Ratzinger



Henri de Lubac



Edward Schillebeeckx



Hans Küng

BIDALIAREN OTOITZA

Zoazte mundu zabalera...

Hitz hauek niretzat esanak dira.

Zure jarratzaile naiz..

Misioan zure jarratzile naiz.

Eskerrik asko, Jesus,

txunditurik aurkitzen naiz zure konfiantzaz.

Uzta ugaria da, eta langileak gutxi, ordea.

Euretariko bat izan nahi dut.

Gizaki asko jausita daude eta guk aurrera egiten dugu.

Samariar ona izan nahi dut.

Bihotz berri nazazu lehenengo neu,
nik beste batzuei Berri Ona iragarri diezaiedan.

Emadazu ausardia.

Bere burua nahikotzat duen mundu honetan
lotsa eta beldur naiz.

Emadazu itxaropena.

Gizarte itxi eta susmagarri honetan,
neuk ere konfiantza gutxi dut gizakiengan.

Emadazu maitasuna.

Lur hotz eta bakarti honetan,
neuk ere maitasun gutxi nabaritzen dut.

Emadazu iraupena.

Giro eroso eta azalezko honetan,
neu ere erraz nekatzen naiz.

Bihotz berri nazazu lehenengo neu,
nik beste batzuei Berri Ona iragarri diezaiedan.

Eskerrik asko, Jesus.

Txunditurik aurkitzen naiz zure konfiantzaz.